

Julene Azpeitia Lehiaketa
2000 urtea

Ipuinak

Bertsoak



JULENE AZPEITIA LEHIAKETA

IPUINAK ETA BERTSO PAPERAK

2000. URTEA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. Ipuinak eta Bertso paperak. 2000 urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1228/2000

2000ko Azaroa

AURKIBIDEA

HITZAURREA	4
------------------	---

IPUINAK

TXAKUR BAT NEW YORK-EN	11
<i>Saioa Gorroño Belar</i>	

UME SUSMAGARRIA	17
<i>Janire Arrillaga</i>	

ILARGITIK HELDUTAKO LAGUNA	25
<i>Iraia Gallastegi</i>	

TELEBISTAN BARRENA	33
<i>Irantzu Lauzirika</i>	

AITONA ETA NIRE ARTEKO SEKRETUAK	41
<i>Libe Atxotegi</i>	

MONJAK	49
<i>Gontzal Alkorta Garai</i>	

PARISEKO ARGAZKIA	59
<i>Ainara Monasterio</i>	

ZER PASATUKO OTE DA?	75
<i>Jasmina Gorroño Elorriaga</i>	

UDAGORRIKO ARRASTIRI HARTAKO URTEGIRATZEA ORTOTSAK LAGUN EDO EURITAN BLAITURIKO UR-BELARRETAN	85
<i>Vicente Gil de Paules Balda</i>	

BERTSO PAPERAK

GOXOA ETA MINGOTSA	111
<i>Jasmina Gorroño Elorriaga</i>	

ZER? SUA	117
<i>Peru Magdalena Arrianga</i>	

HITZAURREA

Julene Azpeitia Ipuin eta Bertso-paper Lehiaketa izen bereko irakasle euskalduna gogoratzeko antolatzen du Durangoko Udalak. Julene, Zumaiarra jaiotzez, gerra aurrean aritu izan zen Durangaldeko eskoletan euskara irakasten. Gerra osteko urte latzak, aldiz, umeentzako liburuak idazten eman zituen. Horregatik, lehiaketa honetako atalik gehienak gazteei zuzenduta daude, umeak baitzituen Julenek etorkizunerako ardatz eta esperantza. Euskararen normalizazioaz dihardugun honetan, ezin ahaztu dezakegu duela mende erdi baino gehiago ere hainbat ahalegin eta ekimen egin izan zirela euskararen transmisioa bermatzeko. Oraingoa, beraz, aitzindari argi, ausart eta sutsuen lanaren ondorengoa da: Julene bera honen lekuko.

Aurtengo lehiaketara hiru-hun lan aurkeztu dira guztira. Gainera, eta hau pozgarria zaigu oso, lehenengoko hiru mailetan, Durangoko gazteek baino parte hartzen ez duten sailetan, berrehun lan aurkeztu dira, herriko ikastetxe guztietakoak gainera. Guztiak argitaratzea ezinezkoa izanik, lehiaketan irabazle ateratakoak argitaratuko ditugu: 9 ipuin eta 2 bertso-paper.

Honen haritik, saiatu gara argitalpen txukuna prestatzen eta, aurreko edizioetan bezala, Imanol Larrinaga durangarraren marrazki paregabeak tartekatu ditugu testuen lagungarri. Helburua lortu dugun ala ez zeuk, irakurleok, erabaki beharko duzue.

Liburuaren azalak iradokitzen duenaren ildotik, ipuin eta bertsoen zurrumbiloei itsasoratu zaitezte eta disfrutatu.

Durangon, 2000ko azaroan.

NEREA URIEN AZPITARTE

Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko lehendakaria

ipuina¹k



Saioa
Gorroño Belar
Irabazlea
11-12 urte sailean



TXAKUR BAT NEW YORK-EN

New York hirian denok dakigu txakur asko daudela baina ez Lutxi bezalakoak. Lutxi txakur eme handikote bat da, ez du buzta-
nik eta bere ipurdia biribila eta lodia da. Txakur hau Arabiarra da,
“MISSIWISTTLING” arrazakoa, hau da, “PENDI” arrazakoa euskaraz. Denok pentsatuko duzue zer egiten duen Lutxik New York-
en, ba nik kontatuko dizuet:

“Lutxi bere jabe arabiarrekin zihoan San Frantziskora hegazkinez, baina bat-batean hegazkina apurtu eta New York-en jausi zen. Lutxiren jabeak eta hegazkineko pilotua zoritxarrez hilda gertatu ziren. Lutxi horretaz konturatu zenean pentsatu zuen: Ni hemen gelditzen baldin banaiz txakurtegikoak etorri eta eraman egingo naute. Horregatik korrika ihes egin zuen, norabide zehatzik gabe. Korrika eta korrika ibili zen 2 ordu eta 25 minutuz. Azkenean gosez hilda eta oso nekatuta zegoen, hiltzeko zorian. Baina bat-batean... saltxitxa usaina heldu zitzaion!! Hau bai poza Lutxirena. Usain hori saltxitxa kamioi batetik zetorren. Lutxiri animuak zabaldu zitzaizkion eta orduan kamioiaren atzetik joan zen






korrika. Kamioilaria bidean zehar jendeari saltxitxak banatzen zihoan, baina ez zion Lutziri bat bera ere eman. Azkenean kamioia leku ilun eta misteriotso batera heldu zen. Leku hark edozeini beldurra sortzen zion.


Dena ilun zegoen. Ez zegoen inor eta lurra zikinkeriaz beterik zegoen. Kamioiaren parean ate bat zegoen eta atean hauxe jartzen zuen: "New York-eko kanposantua". Baina Lutzik ez zekien irakurtzen, horregatik, ezer jakin gabe, barrura sartu zen. Barruan zegoelarik, zarata beldurgarri bat entzun zuen: "PUN". Lutzik beldurtu egin zen eta korrika alde egin zuen aterantz baina atea itxita zegoen. Nerbioak irte-teko prest zituenean, beste zarata bat entzun zuen: "MIAU". Baina katu bat zela konturatu zenean, lasaitu egin zen.

Lutzik gaixoari logura sartu zitzaion eta zegoen hotzarekin, lo gelditu zen. Gauean ametz bat izan zuen, hildako ama berarengana hurbildu eta hauxe esan zion: "Lutzik alabatxo, hemen jadanik ez duzu ezer egi-terik, ez ezazu gehiago sofritu eta zatoz nirekin zerura". Lutzik amarekin ados zegoen eta berarekin joan zen zerura. Hurrengo goizean, Lutzik ez zen itzartu eta ez zen inoiz gehiago itzartuko. Lutzik hilda zegoen.

Kanposantua bisitatzeraz joan ziren pertsona batzuk esaten zuten: "Izoztuta hilko zen".

Eta beste batzuk esaten zuten: "Hainbeste jan eta lehertu egin da". Gauza da, Lutzik zoriontsu joan zela zerura bere gurasoekin batera ego-tera.







UME SUSMAGARRIA

*B*azen behin batean herri bat, urtean zehar milioika atzeritar jasotzen zituela.

Espazioan bizi ziren estralurtar batzuei datu hauek oso interesgarriak iritzi zitzaizkien, eta pentsatu zuten hainbeste atzeritarrekin haiek lurrera joan ahalko zirela ondo mozorrotzen baziren. Haien helburua lurra menperatzea zen.

Estralurtar hauek oso itxura arraroa zuten. Haien larruazalaren kolorea orlegia zen, hiru esku eta hiru hanka zituzten, begi oso handi eta irtenak eta oso garaiak eta meheak ziren.

Misio honetarako hiru estralurtar aukeratu nahi zituzten. Azkenean haiek zituzten hiru gudaririk hoberenak aukeratu zituzten. Lurrera etorri baino lehen, estralurtarrak oso ondo prestatu behar izan zituzten. Oso ondo mozorrotu zituzten, inork ez konturatzeko beste planeta batetik etorri zirela.





Joateko ordua heldu zenean planeta hartako estralurtar asko hurbildu ziren esperientzia berria bizian ikusi ahal izateko, baina haien galaxia bereko beste planeta batzuetako estralurtarrak ere hara joan ziren. Azkenean, lurrera heldu ziren.

Orain, estralurtarren itxura desberdina zen, oraingo itxura geurea bezalakoa zen, gizakiena bezalakoa, baina estralurtar bakoitzak identitate desberdina zuen. Bik guraso itxura zuten (aita eta ama), eta bestea haien semea zela esan daiteke. Lurrean, bizitza arrunta egiten zuten, gurasoak lanera eta semea eskolara. Ume honek ez zuen lagunik, jendea oso arraroa zela esaten zuelako. Eskolako umeek esan zioten zuzendariari oso gauza arraroak egiten zituela, baina zuzendariak ez zuen ezer egin.

Egun batean mutikoa lurrera jausi eta zauritu egin zen, baina mundu guztiak ikusi zuen bere odola orlegia zela.

Berak ez zekien zer egin. Ikasle guztiak odola orlegia zela ikustekoan urrundu egin zitzaizkion, irudi benetan nazkagarria zuelako. Jendea baxu-baxu hitz egiten hasi zen.

Bat batean hauxe entzun zen: “harrapatu eta hil munstroa”. Noski, umea bitan pentsatu gabe korrika hasi zen.


Azkenean, zoritxarrez, harrapatu egin zuten bere gorputzarekin esperimentuak egiteko.





Mutikoaren gurasoen bila hasi ziren; baina hauek zorte handiagoa izan zuten eta, justu-justu, ihes egitea lortu zuten. Ume gizajoa!

Eta, nork dio orain unibertsoan bakarrik bizi garela?






ILARGITIK HELDUTAKO LAGUNA

Nire izena Joy da, baina nire lagunak Joy lodia deitzen didate. 11 urte ditut, baina inor ez da gogoratzen. Nire gurasoek 9 urte ditudala uste dute. Noski, bi urte nituenetik lau urtetara nire logelan eduki ninduten eta janaria arrebak ekarri behar izaten zidan. Orain 11 urterekin, janaria egin behar dut eta, noski, bokata handiak egiten ditut. Nire bizitza ondo zihoan, baina egun batean amona hil zen. Benetan penagarria.

Nik egunak pasatu nituen logelan, baina azkenean amonak esan zidana gogoratu nuen: “Hor goian dagoen ilargira begiratu eta sentitzen duzuna esan. Gero bi egun itxaron eta ilargiko laguna bajatuko da”.

Nik ez nuen sinestu, baina aproba egitea ez zitzaidan txarto etorriko. Gau horretan ez nuen lorik egin ilargiko laguna nor zen jakin nahi nuelako. Bi egun pasatu ziren eta bat batean armairutik zarata entzun zen. Beldur handia nuen, baina zabaltzea lortu nuen. Eta badakizue zer





aurkitu nuen? Bai, ilargiko laguna zen. Amonak egia esan zuen eta nik ez nuen sinestu! Orain ilargiko lagunarekin pozik bizi naiz, hau da, Argitxorekin. Berak laguntza handia ematen dit eta argaltzen lagunduko dit.

Egunero patinak hartu eta bueltatxo bat ematera joaten gara eta, egia esan, asko gustatzen zaigu. Lagun onak gara eta bere etxea bisitatzera eraman nau.

Bere etxea ikusgarria da. Urrez eginda dago eta Lurrean bizi diren neska eta mutil guztiek esaten dutena jakin daiteke. Ni Nerearen pentsamenduetan sartu nintzen, berak nitaz zerbait sentitzen ote zuen jakiteko. Baina ez. Nerea, neska gehienak bezala, Markelen atzetik zihoan, eta nik tristura handia hartu nuen. Baina ez nuen esperantza galdu, eta egunen batean nitaz zerbait sentitzen hasiko zela pentsatu nuen.

Geroago ilargitik bajatu eta nire logelara bueltatu ginen. Han bideo-joku batekin jolastu genuen. Nik asko jokatu nuen, baina Argitxok guztiak irabazi zizkidan. Zergatik izango ote zen pentsatzen hasi nintzen, baina azkenean burura etorri zitzaidan Argitxo ilargiko jauna zela. Ez zen beste bizidunak bezalakoa, eta denetara bikain jokatzen zekien.

Larunbata zen, eta larunbat gehienetan egiten dudak bezala, etxean geratzeko asmoak nituen. Etxean ez zegoen inor. Guztiak kalera joanak ziren. Herriko jaiak ziren. Ohera sartzeko prest nengoenean, bat





batean, leihora begiratu eta hara nor ikusi nuen! Argitxo zen! Niri deitzen zegoen. Leioa zabaldu nuen eta Argitxori sartzen utzi nion.

— Joy. Ezetz asmatu zer ikusi dudan? Hor kanpoan iskanbila handia dago. Goazen!

Argitxorekin bueltatxo bat ematera joan nintzen, eta hara non nire gurasoak ikusi genituen.

— Zer egiten duzu hemendik gaueko ordu hauetan? —galdetu zidaten.

— Hamaika urte ditut, eta nahi dudan lekura joan naiteke.

— Ongi da, baina zuk nahi duzuna egiten baduzu, guk ere berdin egingo dugu, eta etxetik kanpora joango zara.

— Ongi da.

Orduan etxetik joan nintzen eta eskola barruan zegoen zuhaitz batean geratu nintzen bizitzera. Hurrengo egunean Argitxok bera etxera itzuli behar zela esan zidan. Nik berarekin joan nintekeen galdetu nion, eta baietz esan zidan. Orduan berarekin joan nintzen eta han amona maitea aurkitu nuen.



Irantzu Lauzirika
Irabazlea
11-12 urte sailean



TELEBISTAN BARRENA

Jokin izeneko mutil bati ez zitzaion telebista ikustea gustatzen. Bere gelako lagunak orduak pasatzen zituzten telebistaren aurrean. Jai egunak ere telebista ikusten ematen zituzten. Gelakoak telebista ikusten ari ziren bitartean, Jokin hiritik bakarrik ibiltzen zen ezer egin gabe. Batzuetan pentsatzen zuen berekiko: “Zergatik ez zait besteei bezala telebista ikustea gustatzen?”

Bere gelakoek esaten zioten:

– Gaur arratsaldean Koldoren etxera goaz telebista ikustera. Etorriko zara?

– Ez, ezin dut. Matematika ikasi beharra dut –esaten zuen.

Baina gau batean lo zegoela, zerbaitek kilimak egiten zizkion belarrian. Esnatzean gauza distiratsu bat zela ikusi zuen Jokinek. Uste zuen oraindik lotan zegoela, baina errealitatea zela konturatu zen. Aho bete hortz, harriturik, bere buruari galdetu zion:

– Nor zara eta zer nahi duzu?





– Telebistako maitagarria naiz eta telebista zergatik ikusten ez duzun jakin nahi dut.

Jokin hitzik gabe zegoen, eta ez zekien zer esan. Begiak igurtzi eta, ez, ez zegoen ametsetan.

– Ba... txikitan, lehengo aldiz telebista ikusten ari nintzenean, telebistak eztanda egin zuen eta ordutik aurrera telebista ikusteari beldur diot.

– Ez zaitez kexa. Gaueko hamabietan telebista piztu eta ni etorriko naiz, telebistan barrena bidaiatzeko.

– Bai, baina zer egingo dugu hor barruan?

– Telebistaren barruan dagoen guztia ikusiko dugu, horrela zure beldurra desagertu egingo da.

Jokinek ez zekien zer egin; baina gaueko hamabietan telebista piztu eta maitagarria agertu zitzaion. Tarte txiki baten ostean maitagarriak esan zuen:

– Telebista, utziguzu ikusten zure barruko pista.

Orduan argi distiratsu bat piztu zen telebistan eta hortik abiatu ziren biak. Heldu zirenean zinema bezalakoa zela ikusi zuten. Ate bat ireki eta Euskal Telebistan marrazki bizidunak, Euskal Telebista zan pelikula bat, Antena 3an beste pelikula bat... telebistan zituen progra-

mazio guztiak bukatu arte. Jokin errealitatera bueltatu zenean gaueko hiru t'erdia ziren. Bere gurasoak heldu zirenean eta Jokin telebista ikusten harrapatu zutenean harrituta gelditu ziren.


– Nolatan zaude telebista ikusten? –galdetu zuen amak.

– Ama, maitagarri bat etorri zait gaueko hamabietan eta telebistan barrena eraman nau.

– Jokin, joan zaitez ohera, nekatuta zaude eta.

Gaur egun telebista normaltasunez ikusten dut.







AITONA ETA NIRE ARTEKO SEKRETUAK

Gelan nengoela, Xabier kontatzen hasi zitzaidan aurreko egunean telebistan eman zuten partidua eta andereñoa azaltzen zegoen eta biak hitz egiten ari ginen eta... harrapatu egin gintuen. Xabier ez zuen kalera botako, noski, baina ni bai. Ez da ezer berria ni gela kanpoan ikustea beti bainago kanpoko karrajoan norbait nire bila etorri arte eta esan arte: “Ane, barrura!”. Ni orduan gelara sartzen naiz eta nire lekuan esertzen naiz, ezer gertatu ez balitz bezala, baina uste dut andereñoak ez duela berdina uste, baina niri berdin zait.

Ni ez naiz beste neskak bezalakoa, niri ez zaizkit gustatzen beste neskek jolasten dituzten jokoak, niri gehiago gustatzen zaizkit futbola eta beste kirol batzuk, neska gutxiri gustatzen zaizkienak. Nire lagunik onena ere ez da neska bat, mutil bat baizik, Xabier du izena eta munduko lagunik onena da. Xabier ez da oso guapoa, ile gorria du, aurpegia “peca” z beteta dauka, gorputz argal eta zuria dauka, baina lehen esan dudana bezala, munduko lagunik onena da.





Nire etxean goizeko bederatzietatik gaueko zortzi t'erdia arte ez da inor egoten. Eta batzuetan, aste betez edo egun batzuetan, etxea hutsik dago nire gurasoak enpresariak direlako eta bidai asko egiten dituztelako. Egun horiek ez dira oso onak jantokian bazkaltzen geratzen naizelako, baina beste alde batetik egunik onenak dira, aitonaren etxean lo egiten dudalako.

Aitona bakarrik bizi da, amona orain dela urte asko hil zelako, kantzer batez. Nik ez nuen amona ezagutu ni jaio baino urte asko lehenago hil zelako; oso gazte hil zen.

Hauek nire amaren gurasoak dira. Aitaren gurasoak udan eta gabonetan bakarrik ikusten ditut Argentinan bizi direlako. Beraiek ez dira hangoak baina asko gustatzen zaie Argentina, eta dirua dutenez eta jubilatuta daudenez, poz-pozik bizi dira amona Marga eta aitona Jose Mari.

Baina nire aitonarik maiteena hemengoa da, nire gurasoak kanpoan daudenean bere etxera joaten naizena, hori aitona Patxi da. Aitonarekin bizitzea asko gustatuko litzaidake, nahi dudan guztia egiten uzten didalako.

Goizean jaikitzeako ordua denean ohean esertzen da eta esaten dit:

– Anetxo, laztana, ikastolara joateko ordua da.

Eta gosaria ohera ekartzen dit: frutazko zuku bat, tostadak gurin

eta mermeladarekin eta esne beroa txokolatezko gailatekin. Aitonak modu berezi batez esnatzen nau: izartzean beti pentsatzen dut zeruan ez dagoela lainorik eta eguzki handi-handi bat dagoela niri begira.

Etxean aitak ezberdin esnatzen nau:

- Ane, gora, berandu da!. Ez duzu ikusten berandu dela?.

Eta niri kostatzen bazait esnatzea aitak esaten dio amari:

- Maite, ez duzu ikusten?. Ez dit kasurik egiten!. Neska hau...

Orduan nire ama etortzen da eta izarak eta mantak kentzen dizkit eta esaten du:

-Ane, gora!. Aita jadanik haserretu da, ez duzu nahiko ni ere haserretzea, ezta?. Ikastolara berandu helduko zara eta gaur andereñoak berriz ere gelatik botatzen bazaitu, benetan haserretuko naiz, entzun?.

Ni orduan altxatu egin behar izaten naiz, korrika jantzi eta gosatu gabe ikastolara joan. Hori alde batetik nire errua da, baina aitonaren etxean nagoenean ez zait hori gertatzen aitonak askoz arinago izartzen nauelako.

Horiek goizean gertatzen diren diferentziak besterik ez dira. Gurasoak nirekin daudenean, zoritxarrez, beraiekin bazkaltzen dut herriko jatetxe batean. Ni ez nago jatetxe batean bazkaltzearen kontra, baina nire gurasoekin bazkaltzearen kontra bai. Bazkarian mobila txi-




rrinka dago denbora guztian eta hori ez zait gustatzen. Aitonaren etxean ez da inoiz horrelakorik gertatzen.

Detaile txikiak izan arren badute beren garrantzia. Afaltzeko, aitonak berak egindako janari bereziak (txinatarrak edota errusiarrek jaten dituzten platerak) jartzen dizkit. Aitona oso sukaldari ona da eta gainera maitasunez egiten dit dena niri.

Oheratzeko orduan esne beroa ekartzen dit eta bere gaztetako istorioak eta amona nolakoa zen kontatzen dit. Kontatu didanarengatik munduko amonarik politena eta irribarretsuen nuen. Irribarretsuen esaten dut, argazki guztietan irribarre handi batekin irteten zelako, bere hagin zuriak erakusten. Nire amonak ile iluna zuen eta begi handi eta berdeak zituen; noski, horrela topatuko zuen munduko gizonik onena. Nik uste dut oso pozik bizi zirela biak. Etxean amak ez du amonaz asko hitz egiten; normala da, asko sentitu zuen bere heriotza. Gainera aitonak esan bezala edade zail batean gertatu zen, amak 15-16 urte zituela. Aitonak esan dit edade horri nerabe aroa deitzen zaiola eta handia egiteko prestatzen zaudela, baina oraindik burua zerbait galduta ibiltzen dela.

Ni oraindik ez naiz sartu nire bizitzaren zati horretan, urte batzuk falta zaizkit oraindik, baina heltzen naizenean arazoren bat badut aitona hor egongo da, ziur nago.



Gontzal
Alkorta Garai
irabazlea
13-14 urte



MONJAK

*O*rain dela urte batzuk Durangoko San Antonio Komentuan 110 monja bizi ziren. Baina hortik bi oso desberdinak ziren besteen artean: Sor Maria Teresa eta Sor Maria Eugenia ziren. Ez zitzaien gus-tatzen komentuan egotea. Zazpiak ziren eta errezatzeko ordua heldu zen:

– Gure aita zeruetan zarana... Amen –abestu zuten monjek.

Baina bat batean bi lapur sartu ziren komentuan eskopetekin Jordi Pujol buruzagia zelarik:

– Mesedez, altxa eskuak! –esan zuen Jordik.

Orduan monjek lapurrek esan zutena egin zuten. Baina Sor Maria Teresak eta Sor Maria Eugenia korrika hasi ziren ertzainei deitzeko. Baina bigarren lapurra, Paloke deiturikoa, tiroka hasi zen. Orduan bi monjak hil egin ziren.

Hil ondoren espiritu bihurtu zirela konturatu ziren eta bat batean, argi bat ikusi zuten urrutian eta argiari jarraitzen hasi ziren itsu.





Heldu zirenean argiaren amaierara, kartel batean ipintzen zuen:
Foka-monje monja arraroen herria. Monjak elkarri begira hasi ziren.

- Baina zer izango da hau.-esan zuen Eugeniak.
- Guri gustatuko zaigun herria.-erantzun zion Teresak.

Biak herrira sartu ziren eta hotel bat ikusi zuten eta han hartu zuten ostatu.

- E, monster, zer nahi duzu? -galdetu zion hoteleko buruak.
- Isil zaitez aho itsusi hori- esan zuten bi monjek.
- Hemen beti, palabrotak esaten dira eta gauza txarrak egiten. Hobeto esanda monjen jarreraren alderantzizkoa.-esan zion hoteleko buruak.

- Txomin sartu.-esan zuen zerbitzariak.
- Isil zaitez -esan zion Teresak.
- A zelako neska txotxiak -esan zuen zerbitzariak.
- Ai, a zelako mutil katxarroak -esan zuten biek ahopean.

Hoteletik, diskoteka batera joan ziren monjak zerbitzariak eramanda. Ailegatu zirenean, kartel bat jartzen zuen esanez: 5 ordu dauzkazue lurrera iristeko, baina Jainkoarengana joan behar zarete eta giltza lapurtu, baina kontuz esklabo arriskutsuak ditu bidean eta. Orduan biak korrikan hasi ziren.

Aldegin zuten diskotekatik. Baina urrunean gizon bat aurkitu zuten.

- Jainkoaren etxea non dago ?-galdetu zion Eugeniak.
- Dena zuzen joaten bazara han aurkituko duzu.-esan zuen gizonak.
- Eskerrik asko.-esan zuten bi monjek.
- Itxaron, bere aurka eta esklaboen aurka borrokatzeko hartu poltsa eta mapa hau -esan zion gizonak.

- Eskerrik asko -esan zion Eugeniak.
- Ez da ezerगतik -erantzun zion gizonak.

Eta hirurak agurtu egin ziren. Hortik 45 minutura:

- Ez zait bat ere gustatzen toki hau -esan zuen Eugeniak.
- Niri ere ez -esan zuen beste monjak.
- Gizonak mapa bat eman al dizu? -galdetu zion Teresak.
- Bai -erantzun zion Eugeniak.
- Begira ezazu -esan zion Teresak.
- Bide zuzenetik goaz, baina harritzekoa, borobil beltz bat agertzen da -erantzuten dio Eugeniak.
- Ea, erakutsi -esaten dio Teresak.



- O, ez monja monster (azkarra) dagoela jartzen du -esaten dio Eugeniak.

Bat batean bera agertu zen.

- Goazen hemendik, ikusi gaitu eta -esan zuen Teresak.

- Ez, monster honi berea emango diogu eta -erantzun zion Eugeniak

- Pentsa ezazue zuen agurraz, azkena da eta -esan zion monja monsterrek.

Segituan sor Maria Teresak mapa ikusten du eta bere aurka poltsa batekin estaltzea ipintzen dio. Orduan sakutik poltsa bat hartu eta bere gainean ipini zion. Orduan indarra galdu eta hil egin zen. Gero biek aurrera jarraitu zuten.

- Lurralde honek sorgindua dagoela dirudi -esan zuen Eugeniak.

- Isil zaitez eta begira ezazu mapan -esan zion Teresak.

- Tatxan, tatxan, hemen gaude -erantzun zion Eugeniak.

- Zer jartzen du? -esan zion Teresari.

- Monja atomikoa dagoela -Erantzun zion Eugeniak.

- Ja,ja,ja,ja -esan zion barrez leherturik Teresak.

- Ez egin barre, arriskutsua izan daiteke eta -erantzun zion Eugeniak.



Orduan monja atomikoa azaldu zen esanez: ziztuan gora monja atomikoa. Eta Teresak mapa begiratzeko du eta han ipintzen zion monja atomikoaren aurka ur sakratua berari botatzeko. Orduan poltsatik ur sakratua atera zuen.

- Egin ezazu zerbait -esan zuen Teresak.
- Zertan ari zarete? -galdetu zuen monja atomikoak.
- Hurbiltzen bazara, ura botako dizugu -esaten dio Eugeniak garrasika.
- Ja, ja, ja, ja, ez duzue pentsatuko uraz ni itotzea, ja, ja, ja, ja -esan zion Monsterrek.
- Baina sakratua da -erantzuten dio Teresak.
- Oh. Ez, sakratua -esan zuen atomikoak.

Orduan Eugeniak ur sakratua bota zion eta segundo gutxira indarra galdu zuen.

Azkenengoz Jainkoaren etxera heldu ziren eta giltza ikusi eta hartu egin zuten Jainkoa lo zegoelarik. Orduan biek giltza ikutu eta Galdakaoko ospitalean agertu ziren. Orduan haien gorputzetan sartu ziren eta 5 egun barru alta eman zien medikuak monjei. Geroztik monja ez izatea pentsatu zuten, eta horrela izan zen. Gero andre normal batzuk izan ziren eta hortik aurrera bi andreak pozik bizi izan ziren.



Ainara
Monasterio Marcos
Irabazlea
15-16 urte sailean



PARISEKO ARGAZKIA

*U*dan hamazortzi urte betetzen genituen nire koadrilako lagunek eta nik. Hori ospatzeko Parisera bidaia bat egitea erabaki genuen. Baina uda hura ez zen besteak bezalakoa izan, ez bakarrik egiten genuen lehenengo bidaia zelako, ezta hamazortzi urte egiten genituelako, baizik eta, Parisen egindako argazki batek nire bizitza osoa aldatu zuelako.

Parisen oso ondo pasatu genuen nire lagunek eta nik, argazki asko atera genituen, lagun berriak egin genituen, Eiffel dorrea ezagutu genuen... Bertan uda osoa pasatu genuen eta etxera itzultzean amari egin genuen guztia kontatu nion. Opariak poltsetatik atera eta argazki karreteara eramatera joan nintzen argazki dendara. Bertan hurrengo egunean itzultzeko esan zidaten. Hurrengo egunean gosalduta ondoren egin nuen lehenengo gauza argazki dendara joatea izan zen, irrikitan nengoen Eiffel dorrea atzean geneukalarik atera ziguten argazki hura ikusteko, beldur nintzen argazkiak hartu eta argazki berezi hura ez irtetea, baina nire beldur guztiak argazkia ikusi nuenean desagertu ziren. Argazkia eskuarte-

an neukan eta begirada arin bat eman nion. Autobusa irteteko prest zegoen. Geroxeago etxean lasai-lasai ikusiko nituen guztiak.

Ettxera heldu eta argazki guztiak ikusi nituenean lagunarte osoa agertzen zen argazki hura bigarren aldiz hartu nuen eskuartean. Begiratzen hasi eta koadrila osoaren atzealdean ikusitakoak ileak puntan ipini zizkidan eta hotzikarak sortarazi. Argazkiaren atzealdean gauza beldurgarri bat ikusi nuen, ile horidun gizon lodi batek neska bat laban batez hiltzen ari zen, eta berehala gogoratu nintzen egun haietako albiste nagusiaz: Parisen pertsonaia ospetsu baten alaba hil zutela. Egunkari guztietan neskaren argazkia zetorren eta etxeko egunkaria hartu eta nire argazkiko neskarekin konparatu nuenean neska berdina zela konturatu nintzen. Egunkarian Pariseko komisaldegiko telefono zenbakia zetorren eta zer bait zekienak bertara deitzeko ipintzen zuen. Telefonoa hartu eta deitu egin nuen, eta Parisera joateko agindu zidaten. Bi egun geroago Pariseko komisaldegian nengoen nire argazkia eskuartean neukalarik. Bertan nire laguntza oso mesedegarria zela esan zidaten eta Parisen gertatzeko beste gauza batzuetarako deituko zidatelako. Hurrengo egunean albistea egunkari guztietan atera zen eta horrek nire bizitza txarrera aldatu zuen.

Albistea egunkarietan irten eta hurrengo egunean norbaitek toki guztietara eta momentu guztietan jarraitzen zidala iruditzen zitzaidan. Aste osoa pasatu nuen kaletik nindoala atzera begiratzuz eta oso urduri. Aste hura pasatu eta hurrengo egunera gutun bat heldu zitzaidan.



Zabaldtu egin nuen lagun baten gutuna zelakoan, baina ez zen horrela izan. Gutunak hauxe zioen:

ARGAZKIA HARTU ETA PARISETIK
EZ BADUZU ALDE EGITEN, GORRIAK
IKUSIKO DITUZU".

"ZURE AMETS GAIZTOA".

Oso ikaratuta geratu nintzen eta segidan komisaldegira abiatu nintzen. Bertan hiltzaileak beldurra sartu nahi zidala esan zidaten eta lasai egoteko ez baitzidan ezer egingo. Hori esan zidatenean zerbait lasaitu nintzen baina nire buruan bueltaka zebilen gutun horrek zioena.

Paris hiria bestean baino hobeto ezagutu nahi nuen eta horretarako kotxe bat alokatu nuen aste osorako. Egun osoa pasatu nuen kotxearekin bidaiatzen eta erosketak egiten. Gabean hotelera itzuli eta oso nekatuta nengoenez ohera sartzea erabaki nuen. Segidan lokartu nintzen eta gauerdian lo gustura nengoelarik telefonoaren txirrinak jo zuen. Nor izango ote zen ordu horietan deitzeko? Telefonoa hartu eta ahots misterioitsu batek bertatik alde egiteko esan zidan eta segituan eskegi zuen, ni izututa geratu nintzen, nor zen? hiltzailea izango ote zen? Ez dakit nor zen baina deiaren erruz ez nuen gau osoan lorik egin. Oso txarto pasatzen ari nintzen, eta gau osoan denetarik pentsatzen eman ondoren, azkenean, egunaren hasiera iragartzen zuen eguzki izpi bat nire leihotik sartu eta nire logelari, hainbeste alaitzen zidan argitasuna eman zion. Txoriak



ere abesten hasi ziren eta honek egun zoragarria egingo zuela iragartzen zuen. Jantzi, gosaldu eta komisaldegian deiaren berri ematea erabaki nuen. Kotxea hartu eta komisaldegira heltzean norbaitek dei misteriotsu bat egin zidala gauerdialdera eta oso izututa nengoela esan nien. Beraiek hiltzailea izan zitekeela esan zidaten eta, arriskutsua izan zitekeenez, nire atzetik beraien gizon bat gau eta egun egongo zela esan zidaten. Ni asko lasaitu nintzen hura entzutean baina ez nengoen guztiz lasai, gizon hura oso indartsua zelako eta polizia honi zerbait egin ahal ziolako.

Gizon hura atzean neukan gau eta egun, eta oso lagun onak egin ginen. Horrela hilabete oso bat eman nuen, baina denbora horretan ez zuten hiltzailea harrapatu. Baina, guztiak txarrera egin zuen hilabete hura pasatu eta gero. Gau batean etxean gelditzea erabaki nuen, ez zuelako oso eguraldi ona egiten eta gainera ez neukan irteteko gogorik. Gizona nire atearen kanpoaldean geratu zen beti bezala eta ni, hamabiak aldera, telebista apur bat ikusi ondoren, ohera sartu nintzen. Halako batean nire pisuko karrikan zarata bat entzun nuen, kanpora irtetea erabaki nuen gizonari ea zer gertatzen zen galdetzeko eta, hotza ez pasatzeko zerbait ipintzen ari nintzenean, nire logelako atea zabaltzen ari zela ikusi nuen. Polizia izango zela pentsatu nuen eta bat batean dena beltz ikusten hasi nintzen. Ez zen polizia, hiltzailea baizik, gizon madarikatu hark ni bahitzea erabaki zuen ez bainituen bere esanak bete.

Askok ahuldu nintzen ez bainuen ia ezer jaten eta, gainera, ni nengoen toki hark deprimitu egiten ninduen. Toki hartan ezin nuen egunero

kontu guzti harekin jarraitzeko indarrak ematen zizkidan eguzki izpi haiek ikusi, ezin nituen askatasunaren kantuak entzun, txorien kantuak. Bizitzeko gogoak joan egin zitzaizkidan eta erokeri bat egiteko zorian egon nintzen, baina ez nuen ezer egin udan pasatutako momentuetan pentsatzen nuelako, maite nituen pertsona guztietan pentsatzen nuelako, eta azken finean gauza on guzti haiek berriro bizi nahi nituelako eta konturatzten nintzelako bizitza maite nuela. Aste oso bat egon nintzen bahituta, poliziek ez nindutelako aurkitzen eta bahituta egon nintzen denbora labur hartan, nahiz eta niri urteak iruditu, bizitzaren zentzuaz pentsatzen jardun nuen. Zertarako bizi, maitasunaren hiria deitzen dutenera etorri eta argazki batengatik nire bizitza osoak txarrera egin bazuen? Zertarako bizi maitasunaren hirian, sentimendu hau sentitu beharrean gorrotoa eta tristura sentitzen banuen gizon madarikatu batek inolako arrazoirik gabe pertsona bat hil zuelako eta ni bahituz neure eskubide guztiak zapaltzen zituelako? Guzti hau pentsatu ondoren biziak ez duela aldatu behar pertsona batek mindu nahi zaituelako pentsatu nuen. Horrela aste oso bat eman nuen. Zortzigarren egunean, uste dut zortzigarrena zela, ez bainituen kontuak eramaten, neure azken egunetako pentsamenduetan murgildurik nengoela, atearen beste aldean zarata gogor bat entzun nuen eta geroago oihu handiak entzun nituen. Poliziak ni bahituta nengoen tokia aurkitu zuen eta ni ateratzera joan zen. Azkenean ikusiko nituen bizitza ematen zidaten eguzki izpiak eta alaitasuna ematen zidaten txori kantuak ere entzungo nituen. Azkenean askatasun anderea besarkatu ahal izango nuen. Poliziek ni “zaintzen” ninduen pertsona atxi-



lotzera joan zirenean, hark ni hartu eta bertatik irtetekotan zegoenean nik gizon hura despistatzeko mugimendu handi bat egin nuen eta berak pistola hartu eta tirokatu egin ninduen. Berriro ere gaua, berriro ere iluntasun beldurgarri hura, berriro ere bizitza galtzen nuela sentitzen nuen, berriro ere askatasunak galdu zuen heriotzaren kontrako borroka, berriro ere preso, preso nire buruaren barnean, nire pentsamenduen barnean.

Erietxera eraman ninduten eta bertan oraindik presoago sentitzen nintzen, etzanda bainengoen makina guzti haien artean. Min izugarria sentitzen nuen buruan eta bular aldean, eta gero eta ilunago ikusten nuen dena. Ez zen ez, denek esaten duten moduan, heriotzarako bide hura zuri kolorekoa, guztiz alderantzizkoa zen dena. Oso ilun ikusten nuen, eta pasabide hura inoiz ez zela bukatuko pentsatzen nuen. Mugitzen ez nintzela ematen zuen.

Nire ama erietxera heldu zenean, bera nire gelan sartzerakoan oso triste zegoela sumatu nuen. Nire ondoan eseri eta negarrez hasi zen. Hitz egiten hasi zitzaidan eta nik erantzun nahi izaten nion baina ezin nuen. Nire ahoak ez zuen inongo zaratarik ateratzen, iluntasun hark ikusmena eta hizkera kentzen zizkidan. Bi egun oso larri pasatu ondoren, halako batean, nire pasadizo beltz hura argitzen hasi zen eta dena gero eta argiago ikusten hasi nintzen. Bat batean argitasun hura bukatu eta pertsona baten aurpegi zurbil hura ikusi nuen. Ez , ez zen ametsa, begiak zabaltzen nituen eta nire ondoan oso itxura txarra zeukan emakume bat ikusi

nuen. Niri muxuka hasi zitzaidan eta nik medikuari non nengoen eta emakume hura nor zen galdetu nion. Nire ama zen baina nik ez nuen ezer gogoratzen, medikuak esan zuenez tiroak burua jo zuenez amnesia sortu zidan, eta medikuak hori esan bezain laster, ama negarrez hasi zen bere umetxo txikiak bera ez zuela gogoratzen esanez.

Bizitza errekuperatu nuen bai, baina zertarako errekuperatu bizitza pasadizo ilun hartatik irten eta ez baduzu inor ezagutzen eta zu nor zaren ez baduzu gogoratzen? Ez nekien nor nintzen, ez nekien non nengoen eta ez nekien zer gertatu zitzaidan erietxean egoteko. Erietxean denbora asko pasatu nuen eta amak psikologo baten laguntzarekin egunero memoria berreskuratzen laguntzen zidan. Pixkanaka-pixkanaka dena gogoratzen hasi nintzen eta terapia hasi eta bi hilabetetara guztiz osatuta nengoen memoria aldetik, baina fisikoki ez nintzen oraindik errekuperatu, bular aldean jo zidan tiroak batetik bestera zeharkatu ninduen eta bertebra bat ukitu zidan ni betirako eserita utziz. Ezingo nuen nire lagunekin jokatzeko nituen partiduetan jokatu, ezingo nuen lehen dantzatzeko nuen bezala dantzatu eta txarrena, ezin izango nuen hainbeste gustatzen zitzaizkidan nire herrialdeko mendiak berriro igo, ezingo nituen mendi tontorrean txori askeen kantuak sentitu eta ezingo nuen mendi tontor hartan txoriek daukaten askatasunaz gozatu.

Erietxetik irten nintzen eta modu batean askatasuna berreskuratu nuen. Berriro ere besarkatu nezakeen, baina oraingoan ez nuen besarkadaren indarra sentitzen, ez nintzen guztiz aske sentitzen nire bizitza osoa



eserita pasatu behar bainuen.

Erietxetik irten nintzenean poliziek hotelera gizon bat bidali zuten ni komisaldegira joateko eta tirokatu ninduen gizona hiltzailea zen esateko. Komisaldegira heldu nintzenean gizon hura ikusi eta hotzikarak sentitu nituen. Poliziei bera izan zela tirokatu ninduen eta neska hura hiltzuen esan nien, eta gizona hartu eta epaitu egingo zutela esan zidaten. Nik epaiketara geratzea erabaki nuen ematen zioten zigorra ikusteko. Behin-betiko zigorra eman zioten eta ni oso pozik jarri nintzen hain txar-to sentiarazi zidan gizon hura kartzelan sartuko zutelako. Herrira itzultzea erabaki nuen.

Herrirako bidaian zehar asko pentsatu nuen. Nire lagunak ez zidaten lehen bezala tratatuko eta, ziur aski, ez zuten gehiago nirekin egon nahi izango ni jesarleku berezi hartan eserita nengoelako. Herrira heldu ginenean koadrila osoa nire etxean azaldu zen niri ongi etorri jaia emateko. Denak berdín zeuden, denak ni izan ezik. Ez ninduten berdín tratatzen: pertsona ezindua banintz bezala tratatzen ninduten, baina ni ez nintzen ezindu bat, ni betirako eserita egongo nintzen pertsona bat nintzen, betiko pertsona berdina nintzen. Herrian bertan ere desberdín tratatzen ninduten, ogia erosterakoan nire ordezt ordaintzen saiatzen ziren baina ni haserretu egiten nintzen eta nik egin nezakeela esaten nien. Hau gauza guztiekin gertatzen zen. Denborarekin egoera hau normaltzen hasi zen eta herriko denek beti bezala tratatzen ninduten. Orain mendira joan beharrean hondartzara joaten nintzen eta bertan mendi tontor haietan

sentitzen nuen askatasuna, aire garbia eta txorien kantuak sentitzen nituen eta gainera hondartzan itsasoak zuen askatasuna sentitzen nuen eta erietxetik irteterakoan galdu nuen askatasun zatia ere berreskuratu nuen.

Behin Frantziatik gutun bat heldu zitzaidan eta bertan hil zuten neskaren gurasoek barkamena eskatzen zidaten bere alabaren hiltzailea aurkitzeagatik pasatu nituen gauza guztiengatik eta eskerrak ere ematen zizkidaten esanez beraien etxera joateko egun batzuk pasatzera. Nik ezetz erantzun nien geroago bidali nien gutun batean eta ez nuela Frantziara joan nahi bertan pasatu nuen infernua ez nuelako berriro gogoratu nahi, lurralde haiek bertan bizi izan nuen guztia gogorarazten baitzidaten, besteentzako maitasunaren hiria zena niretzako ametz gaiztoaren hiria zen, denak amets gaizto bat baino ez zuelako ematen. Ni ez nintzela joango esan nienez beraiek etortzea erabaki zuten, astedebete barru iritsiko zirela esan zidaten.

Beraien bigarren gutunean esan zidaten bezala aste bete pasatu eta gero iritsi ziren. Aste bete horretan barkamena behin eta berriz eskatu zidaten eta nik pertsona bat hiltzeko eta beste bat tirokatzeko gai den gizon batek kartzelan egon behar zuela esaten nien. Berak nire askatasunaren zati bat kendu zidanez nik ere bere askatasuna kentzea erabaki nuen. Pertsona haiek oso famatuak zirenez egunkarietan irten ziren: Ni ere beraiekin nengoen eta nire burua egunkari batean ikusteko egun horretako egunkaria erosi nuen. Nire argazkia ikusi eta honen azpian



guztiz ikaratu ninduen albiste bat irakurri nuen:

**“PARISEN EUSKALDUN BAT BAHITU
ETA TIROKATU ZUEN GIZONAK IHES
EGIN DU KARTZELATIK BART GAUEAN”**

Oso izututa geratu nintzen gizon hura nire herrira etorri zitekeela pentsatzen nuelako. Amak eta nire lagunak hori ezinezkoa zela esaten zidaten inork ez baitzion esan ni non bizi nintzen. Nik berak hildako neska-
ren gurasoak herrira etorri zirenean egunkari guztietan etorri zela esan nien eta bertan herriaren izena ere ipintzen zuela esan nien. Albistearen entzun eta ondorengo bi asteetan oso urduri sentitzen nintzen, hiltzailea nire atzean zegoela pentsatzen bainuen. Bi aste horiek pasa eta gero, ostegun guztietan bezala, hondartzara joan nintzen lagun batzuekin. Beraiek argazki kamera eraman nahi izan zuten, baina ez nien utzi, istorio hau argazki kamera batengatik hasi baitzen eta, honela, bideo kamera eraman zuten.

Hondartzara heldu ginen, eta lagunak uretan zeudela grabatu nituen. Gero saskibaloian jokatzera joateko esan nien eta, batek, ni eta besteak saskibaloian jokatzen grabatu gintuen. Asko nekatu nintzen. Deskantsatzen ari nintzela, lagun batek ni grabatu jardun zuen. Grabatzen zegoela oihu egin zuen atzetik gizon bat zetorkiola. Nik buelta eman eta hiltzailea zela ikusi nuenean, korrika irteten saiatu nintzen, baina saiakera horretan jesarlekutik erori eta gizona hurbiltzen zitzaida-



la ikusi nuen. Nire lagun batek baloia hartu eta burura bota zion eta hiltzailea lurrera erori zen konortea galduz. Bitartean beste lagun batek poliziari deitu zion eta gainerakoek nire jesarlekuan esertzen lagundu zidaten. Polizia heldu zenean gizona atxilotu eta kartzelara sartu zuten. Orain dela aste bat gizon hark bere buruaz beste egin zuela enteratu nintzen.

Dena amaitu da, baina ez nire egoera hau, ni betirako jesarleku honetan egongo naiz. Hau alde batera utziz, jendeak ni ondo nagoela pentsatzen du, baina ez da horrela, argazki hura ikusten dudak bakoitzean askatasuna galtzean zer sentitzen den gogoratzen dut. Heriotzaren ateetan egoitea zer den gogoratzen dut eta, txarrena, nor zaren ez gogoratzean zer sentitzen den gogoratzen dut, eta negarrez hasten naiz argazki madarikatu batek pertsona baten bizitza nola aldatu dezakeen ikusten dudanean. Ordutik aurrera askatasuna inoiz baino gehiago estimatzen dut.



ZER PASATUKO OTE DA?

“*J*aun andreok, jarraian Bilbotik datorkigun Elena Balentziaga disenatzaile gaztearen modeloak ikusgai izango dituzue. Txalo bero bat!”

Ai ama, zer pasatuko ote da? Hor doa Judith Hermoso belaunerartinoko setazko “kasaka” zuriaz, kolore berdineko prakekin eta sandaliekkin.

Segidan, Marta Aperribai “sari” antzeko soineko gorri batekin eta setazko buruko fular laranja biziarekin.

Hementxe nago eszenatoki atzean geldi, tente eta beldurrak airean.

Galdetuko duzu irakurle zergatik demontre nagoen egoera honetan. Gaztea naizelako? Ba ez. Berria naizelako honetan? Ezta. Minutu pare bat badaukazu kontatuko dizut guzti honen zergatia.

Duela 10 urte gutxi gora behera hasi zen kontu hau guztia. Irene nire ahizpak erropa konponketen lokal txiki bat zeukan Bilboko Somera kalean, eta nahiz eta egunero lan txikietan jardun, inauteri sasoia heltze-

rakoan bezeroek praka barrenak hartzea baino zerbait gehiago eskatzen ziguten. Jai hauetan, nire txikitako paperezko panpinei egiten nizkien jantziak praktikara eramateko aukera izaten nuen tela eta tamaina erre-aletan, eta gure bezeroak pozez gainezka, Bilbo osoko mozorrorik deigarrienak eramaten zituzten. Ondorioz, ahoz aho hasi zen zabaltzen “Irene konponketak” dendan egiten ziren txikikeria handiak. Holan, jendea mozorroak ez ezik, trajeak, prakak, gonak, soinekoak... eskatzen hasi zitzaigun.

Irenek eta biok beharra jo ta ke egin genuen urte askotan zehar, eta azkenean, lortutako arrakasta ikusita, gure modelo propioak lokal berri eta handiago batean egitea erabaki genuen.

Egun batean, Bartzelonan, pasarela bat gauzatzeko zirenez, bertako antolatzaileek gonbidatu gintuzten gure modeloak erakustera. Birritan pentsatu gabe gonbidapena onartu eta joan egin ginen.

Jendeari gustatu egin zitzaion gure lana, horregatik Milanera etorriak gara aurtan.

Sei hilabete osoz ni eta Irenetik aparte beste hiru lagun egon dira lanean desfile hau prestatzen, oihalak aukeratu, diseinuak egin, moztu, josi, neska egokiak hautatu...

Eta dena ondo zihoan atzo goizerarte. Goizeko zortzietan irten zen abioia. Hamarretan Milanen nintzen, bost minutu beranduago zinta mugikorraren aurrean nengoen maleten zain egun handi hartarako jantzi



guztiak bertan gordeak nituelarik. Han egon nintzen adi-adi, geldi, karroa parez-pare neukala zarata bat entzun nuen arte. Halako batean, maletak pon, pon... hasi ziren jauzten banan-banan eta astiro-astiro: larruzko marroixka bat, "sansonite" gorri gogor bat, norena ote zen?, mendiko motxila more luze bat, umeentzako karrotxo bat... non ote daude nireak? Pentsatu nuen. Zergatik ez datoz? Hauek, Iberiakoez ez daukate ganorarik! Mekauen zotz! Beti berdin! Kobratzen dutenarekin eta gainera hau!... Banketxe batek oparitutako telazko maleta berde erdi tintatu bat... ene! Zelako txerrikeria! Zeini bururatu dakioke atun pote bat olio beteta ekartzea! Ziur asko maleta beltz ziztrin horretan etorri da, kremaileira erdi zabalik dauka eta. Beno, pazientzia galtzen hasia naiz, non Kristo daude nire maletak! Badaramatzat gutxienez hamar bat minutu hemen eta ez dago ezelako arrastorik. Ai,ai,ai,ai, falta zena, katea geratu egin da! Zer esan nahi du honek, maleta gehiago ez dagoe-la? Eta nireak?

Hogei ordu falta ziren desfilea hasteko. Zeozer egin beharra nukan. Irene hemen egongo balitz beste kuku batek joko luke, pentsatu nuen neure kautan.

Ezkerreruntz begiratu eta ez zegoen inor. Aurrean ere ez. Eskumatarara aldiz, haserre itxura zeukan gizonezko beltzaran bat, hark ere karroa hutsik. Zorigaitzak ematen duen solidaritatearekin hurbildu nintzaion galdezka ea berari ere ekipaia falta ote zitzaion. Baietz erantzun, eta biok batera, eskuz esku maletak erreklamatzerara abiatu ginen



bertako bulegoko andre edadetu batengana. Hau antza, oso ohituta zegoen gulako jendearen haserreak eta zaratak entzuten, eta lasai-lasai esan zigun maletak ziur asko beste lekuren batean egongo zirela, paperak betetzeko, eta telefonoz deitzeko lau ordu pasa eta gero.

Honenbestez, bazkalordua zen lez, zerbait jatea eta ahalik eta lasaien itxarotea erabaki genuen.

Nire kidea Angelo deitzen zen (eta deitzen da), eta India eta Pakistaneko erropak saltzen zituen Milaneko alde zaharreko dendatxo batean. Kontatu zidanez, bost urtez lan honetan ziharduen eta bezerorik onenak hippy ohiak ziren.

Behingoz pasatu ziren lau orduak eta berriro andre harengana bueltatu ginen maleten berri jakiteko, eta bazeukan hauen berri. Oraingoan bai, oraingoan bazeukan maleten berri. Maletak Melbournarako (Australia) bidean zihoazen eta gutxienez beste egun bi beharko zituzten itzultzeko. Hori entzun nuenean, odolik gabe geratu nintzen, zuri-zuri. Zertarako hainbeste lan? Zer esango nien nire lan-kideei? Eta Ireneri?

Angelok nire egoera ikusita, errukia hartuta berarekin joateko esan zidan, zelan edo halan konponbideren bat topatuko genuela esanez.

Niri momentu hartan bost axola, ez neukan erreakzionatzeko gaitasunik eta automata baten moduan atzetik jarraitu nion.

Kristalezko ate automatikotik pasatu eta kalera irten ginen taxi bat hartzekotan. Ez nintzen ezer ikusteko ezta ezer entzuteko gauza.

Konturatu orduko, Angeloren egongelako sofa laranjaren ertz batean jesarrita nengoen.


Denbora pasa zen antza, eta Angelok dendara joan beharra zeukala esan zidan, eta nahi izanez gero berari laguntzeko.


Dendako atea pasatu bezain laster konturatu nintzen zer posibilitate zituzten hango erropek: setazko soineko luzeak, linozko koloredun alkandorak, kotoizko praka freskoak, birx-birxdun txaleko laburrak, elefantez hornituriko poltsa distiratsuak... udaberri zein udarako erabat aproposak.

Orduan, nire burutik pasa zitzaidanaren berri eman nion Angelori, eta honek, bere agin zurixkak agerian uzten zituelarik, irribarre zabal batez nahi nuena har nezakeela erantzun zidan.

Arratsalde, gau eta goizalde osoa pasatu dut pentsatzen zer nolako konbinaketak egingo nituen Angeloren erropekin, baina modeloak etorri direnean, neuzkan zalantza guztiekin bukatu dut. Orienteko janzerara itzultzea proposatuko diet ikusleei.

Hementxe nago, eszenatoki atzean geld, tente eta beldurrak airean. Zer pasatuko ote da? Zein izango da ikusleen erreakzioa?







UDAGORRIKO ARRASTIRI HARTAKO URTEGIRATZEA ORTOTSAK LAGUN EDO EURITAN BLAITURIKO UR-BELARRETAN

2000ko uztailaren 19a

Sandinisten (FSLN) garaipenaren hogoita batgarren urtemuga.
" Viva Nicaragua Libre! "

Hi baizikan ez? Tta!¹ Ttattiko! Tirrit!
Hi eta kitto? Bai, zotza! Bai bost!
Hi eta bertze ezein ez? Ezta pentsatu ere!
Hala? Ezta hurrik eman ere?
Hala? Baia²? Bai, zera!
Hi eta haiek,
hi eta zuek, eta
batzuetan
ni neure buruarekin baizikan ez.
Hain maitagarri baitzarete,
bai alajaina!
Pott, pa, ma, matto eta bixiko³.

1. Tta: ttattiko; tirrit; bai, zotza; bai, bost, ezta pentsatu ere; ezta hurrik eman ere; fa.

2. Bai, ala?

3. Guziak musu.

Euskaltegien azkeneko bestatik heldu nuxu. Ikusi ditut! Baiki⁴, bertan zituxun, bi-biak, bi-biak elkarrekin nahiz zein bere aldetik. Izenak Ane eta Ibabe. Ibabe titi-agerika -salbu ilunabarrean freskatu duenean- eta Ane goikoa jauntzia, baina goikoa ene gustukoa zenez -halako bi triangeluak harat-honak higitzen diren horietarik-, bada xar-manki zela erraiten ahal dixut. Anitz jan dixie; gustatu dixie ahate konfita eta anana-mazurez⁵ eginikako dexerta zerbait; saiatu dixie arnoa, garagarjusa eta Xiberuko ura, erran nahi baita, sagar-likorea; eta dantzatu dituxu; dantzatu dixie jota, merenge eta rocka, vals, pasodoble eta chotis, lotuak zein aske. Deliziusak, bi-biak! Ene gogoko guziz! Aski gorribelzturik itzuli dituxu etxerat; Alde Zaharrean, haien kolorea! Hortzen zuria! Begien distiranta! Ibabek bikiniaren goialdea orduantxe dixu zinez jauntzi, Anek topa zixun jauntzia. Irri galant parrasta bat egin dixugu elkarrekin. Ni honen zoriontsu nintzen, ez bainintzen triste egoiten ahal. Ez ahal! Haiekin? Triste ez, kezkatua, arduratua edo bai, baina triste ez hain maite baititut. Nik haiek bezain maite haiek ni banindute! Baiki, tumatxa! Eta aski kontent nuxu etxeratu, haiek gogoan, haiek bihotzean -hor min nixun-, txotxoa zut, ondoan iragaiten zitzaidan zernahi gustuko neskari irriñoz so. Ameslari, honen bertze urte troinuan eta oraino ameslari, XIX. mendeko ameslari. “Agian sarri ikusiren ditut!”

4. Bai, egia da.

5. Mazura: mailuki, marrubi, arrega.



Sagar has, izan ere, titi has dira. Bikiniaren kuleroa baizik ez eta zangoen gainean. Hala. Hala ostatuko jendartean haizu baita. Han barnago eta hobe, hobe ni haien giblean bainoa eta biziki maite dut udan haiekin hala jendartean ibiltzea, eta haiek badakite arras ontsa non sartu diren. Egarri gara eta garagarjus zerbait erosi nahi dugu. Zorionez eguzkistatua, lorietan, uros, deskantxuan biziki nabil. Baiki, enetxook.

*Exhibizionista izaitea bestaren antolatzea da.
Exhibizionistak jendeari besta adelatu behar dio,
irri eragin, poz, xarma, solas “Biba hi!”, “Lohi
hori!”, “Biba hi, lohi hori!”... Gogoa, zubi.*

— I —

Udamineko egun batez banuen fantasia batto, orduko ene gutizia minena...

“Hemen, ekigorritan izerditsu ari direnetarik zeinek ote nau mai-teko?... Hemen, ostatuan titi-agerika sartuta ari direnetarik zeinek ote nau gogatuko?... Begiz jotzekoez baduk zapart⁶, emeske⁷ ibiltzekorik ihaurri. Izan ere, bai baita neska-puskarik franko, neska-katxarrorik asko eta laño, zapore ona baitukete orok, ukan, lurrina goxo baitute.

6. anitz, franko, asko, ausarki, ihaurri.

7. Arreske, emeske.

“Baziakit gauzak ez direla egunetik biharrerat aldatzen, baina... Zernahigisaz, deskantxuan nuk inguruka hamaika neska gisako, agrados eta plantako baita (zenbait eskualduntsa). Berauen arteko baten bat gogatuko, horretaz ez diat den gutieneko arrenkurarik.

“Oi, baiki! *Kutx-kutx, ttipirrin*⁸ erraitea nahiko diat eta ni mai-tekiro guziz menpe, guziz gogalgin joanen natzaizue potikoka⁹ zernahiren milikatzerat, xoko-moko ororen txestatzerat; zartagina zaharra bezain gormanta¹⁰ ukanen nazue, urde ahari galant¹¹ hauek, eta ni joan egingen nuk zuengana biga-bostetan ase ezinez mirllakatzerat eta zuen teixutzerat¹², eta *Orizue mama goxoa, aketzok!... Arras ontsa!... Horrela!... Irents!... Irents! Hala!... Bai!... Horrelaxe!... Guzia irentsi? Baiki! Eta ederki dakizue ahizuriaren isuriaraz eta ahorarazten!... Tumatxa!*”

Gisa horretakoak nerabiltzan gogoan bihotzetik bero noiz eta ere euskaltegiko bi laguntsa hurbildu baitzitzizkidan.

–Adio!

–Adio...

–Ane eta Ibabe. Oroit? –zein ziren bai, baina izenez ez eta neskek merezi zuten, itxuroso agertu behar.

–Egia! Izenak ahantziak nitinan. Barkatu.


8. Urdearen deitzeko elea.

9. Katuka, txakurka, pitzi-patza.

10. Jatun, gosailo, gosailu, jale porrokatu.

11. Makera eder.

12. Ezpainen milikatzerat eta zuekin larrutan jardutera.



–Ez duk pekatu.

Paregabe! Haien arribatzearekin errealitateak beretuko ninduen, baita ferekatuko ere. Ibabe sagar–agerika zen –sagartzar–agerika neska aski guri baita–, halako moltsaño zapala sagarren artean dindilizka. Ane jeanmotxak soinean, antxume¹³ eta ezker orkatilekoa zilar distirantezko. Ene aldetiko begitarte osoa izan zuten. Neska xarmangarriak nituen, sekula izan badira.

Tar–tar–tar ari izan ginen ostatuko freskuran, dzanga–dzanga, haiek garagarjusa, nik panaxea. Anartean, atunek adinako begi larriak zabalduz miresten ari nituen, ez baitira entrabaleko urruxunak¹⁴. Aspaldiko parteko urostarzuna!

–Hik zabaltza baduk, ezta, txotxito¹⁵?

–*Txotxito*! Bai, polita! Hala erran didan! –tutulu¹⁶ ote nintzena? Peio akaso? Nerabe pito ote? Debrua!– Zera... baiki.

–Noiz gonbidatuko? Ala norbaitekin bizi haiz.

–Ez, bakarrik bizi nun. Bertzenaz ere...

–Etxaiderik ez, arren¹⁷.

–Ez. Bakar–bakarrik nun bizi, eta abantzuño nolanahi.

¹³. Antxume: orpogorri.

¹⁴. Ez baitira neska makalak.

¹⁵. Txotxito, txotxo, txo, tto, to; neskei no, ño.

¹⁶. Pito, ments, kaiku, babu, tentel, tetele, ñuku, pettux, sopikon, kaskamelontzio.

¹⁷. Beraz, hortaz.

-Ederki, txotxo.

-Txotxo! Orai, txotxo! Tumatxa! -peio ez, baina tutulu bai.

-Nahi duka orai joan?

-Orai?

-Bo, seiak pasatxo dituk; ziuraski, han orai goxo duk.

-Bo... bai... egia dun.

-Jauntzi eta joanen?

-Ontsa...

-Autorik bai?

-Ez...

-Guk bai: berea.

-Tira...

-Gisa honetan ere gituk han izanen.

-Bo, nik orai ez baina han sagarrak agertuko... -haiek harroara-ziz seinalatu egin zizkidan.

-Eta nik zangartea, aratz diat guziz... -harat-honat so eta kule-roaren aitzinaldea pixkirrin batez behititurik, bilo mikorik ez, aratz-aratz. Neska deminioa! Horrek izigarri irakiarazi zizkidan hunak, eta zer erranik ez odola. Berau, gori-gori; ilenti sutua... Beronen suaz zeinahi ohar zitekeen, ori.



-Ene, neskak! Goazen, arren!

Beharrik baginen aitzinetik elkarrekin solastatuak, euskaltegien azkeneko bestan, arramaiatzean, igeri-lekuan, bertzenaz, tta!, bertzenaz ez dut uste atarramendu handirik ukanen nuen; alta, alorra landua zen eta neskak biziki jator, arras jendekoi, guziz adeitsu, ezinago maitagarri. Xerka ari baitziren. Gaitz erdi!

-Laket?

-Ontsa¹⁸.

-Onduko, arren?

-Onduko ez dut, ba!

- II -

Halakoaren nahi gorria bainuen, entseiatu nintzen, senperrenak egin nituen eta hantxe nintzen, harraskan ipurdia sartua, xaboidun ur epela sabeleraino, odola areago irakiten ari, haien beharrean, haien osoki beharrean. Hunak -oi, hunak!- asmoez zapartatu beharrean. Demontre!

Atsegin bat gaitzak gaxokatu¹⁹ gintuen haiek xaboia kendua txo-txo-iztersaguei ekinez eta ni haien aldetik zernahi bilduz.

¹⁸. Ongi, ondo.

¹⁹. Gaxokatu: laztandu, ferekatu.



Txotxotik-iztersaguetarik ez ezik, pikostetik ere ari izan ziren sendo. Haien sakea! Mauka-mauka, ezpain, mihi eta guzi. Hala, eta titiztatu²⁰ ere egin ninduten.

Ene ametsa ziren. Haienganako maitasun handienaz gainditua²¹ nintzen. Kanpoan Jainko ttipia²² zebilen.

Haien aldi. Zabaltzarat atera, etzangian elkarrekin ezarri eta oro-tarik egiterat utzi ninduten. Pareko zabaltzan halako lagunartea bazegoen; tarteko neska bat, bikiniaren bularretakoa soinean, so zen, so zitzai-gukeen... “Harat harako urdangaño horiek eta beren ordotsa. Urdangak sagar-agerika eta, ziuraski, pikarra, baita apotea ere, baina hemendik ezin haboro ikus. Neskak jarri edo etzan bide ditun eta morroiak txotxoa ekainiko txotxontzi horiei, edo, heldubada, haiek hari usoa eskainiko nahikara milika diezaien. Lohiak halakoak!” Gostu-gostuan harako neska hura pareko zabaltzatik guri soz ele horiek oro gogoan.

Funtsean ez ginen *interneten*, ez bideoan, ezta ezein aldizkaritan ere. Pare-parean gintzaizkion, bizi-bizirik, berebiziko xanfartaren²³ baitan pulunpaturik, izerdi-trenpan, net ekiztaturik eta gogo onez ari gintzaizkion elkarri, ari ere.

20. Titiztatu: titia eskaini edoskitzeagatik.

21. Betea.

22. Jainko ttipi: andraize, hegoaize, haizego.

23. Xanfart: oturuntza.

Zangotan²⁴ para nendin nahi eta halaxe nuen egin; zankaparka²⁵ ere nahi, eta gogotsu obratu. Amoros nituen guziz. Miresten ari nituen, balios, delizius nituen beren horretan, erran nahi baita, oro eskuragarri, oro gogalgin.

-Gostuan, zankako bat ona edanen nuke!

Txiza egin zezaten nahi. Urtxuria nahi. Nolaz behar zuten askatu beren burua eta hala eginez nolaz behar ziren gozatu ikusi nahi eta harat han gernu beroa zirrikituei iheska. Oi!... Hauta bi-biak! Xarmanki²⁶ ari laztanak! Eta etzanak txiza nolaz ari zitzaien eskapatzen senditzen ari zireino, titimokoei lotu nintzaian, zutagotu zitzaian, nehongo arazorik gabe ibili nituen. Lau-laurak airos, ezpainetaragarri, mihiragarri, ttuz-tagarri. Gostuan eginen nien nik txiza, baina "Hurrengoan, txo!...". Hurrengoan, ori, eta hurrengo hori ere ez bide zitzaigun nolanahiko agituko. Anartean, txizatan ziren oraino, taigabeko iduri zuen; ez zen estonatzeko ur-garagarjusak²⁷ ausarki edanak baitziren. Nahi nuen ametsetan bezala sendi zitezen, ametsetan bezain aske, beren eskuko eta txiza eskapa zekien, eta ohartuagatik, atxik ez zezaten, aitzitik, kontua polita iduri eta segi zezaten, ttinka bat bera ere geldi ez zekien arte, hain justuki. Eta ni beha, estonatua guziz, maitemindua guziz, ferekatuz haien larru goxo guri belloaren haztatzeke irrikaz, masailen hantxe ezartzeke

24. Kaka egiteko gisan.

25. Zankaparka: à quatre pattes, pitzi-patza, lau oinean, katuka.

26. Polito, ederto.

27. Ur eta garagardoa.



irrikaz, haien gainean paratzekoaz. Anartean, txotxoa zut-zuta, gogor, sentibera, iztersaguak hustutzekotan, berauetan hatzak. Neska politak musua itzulia. Pixkirrin batez. Ixil-ixila nonbait hura baizik ez baitzen handik soz.

Txiza egin baiko, gainezka egin zuten²⁸; gainez eginik, lo seko eta nik pareko neskari beha idiarena, harendako, hura eni soz, begietsiz parte hartu nahian, eta ez zirudien so egitetik kantitu behar zenik. Zorionez! Maite ukan nuen haren honat beha egon izana, haren ikusi nahikeria ahalkegabea. Baiki, izan ere, zirraragarriago da biluzgorritarzunga edo larrutan ari izaitea gostuko norbait beha baldin bada. Bai, alajaina. Biluzgorriak edo larrujoileak ageri-agerian, baita behazaleak ere. Zelako neskak atseginez ari ninduen betetzen. Ba ote zena negugorrian biluzgorritu eta pirripitaz hotzak hotz karrikaz karrika ibili zen neska? Irrati libreak proposamena plazaratu eta delako neska lotu zitzaion harik eta denbora luzean harat-hunat korritua polizia agertu eta halako burusia gaineratu zitzaion arte. Exhibizionista balitz! Urtegiat bidean, aldapari goiti agertuko balitzait, edota parkeren batean ekigorriak zinez dzinkatzen duen orenean. Izigarri xarmatuko ninduke.

Ontsa jan, ontsa edan, lagunei ekitakoa zabaldu eta barnerat joan nintzen, akiturik, lo-suz, etzan beharrean. Neure buruarekin zinez ontsa. Bazen, izan, gozaldiez zapart, izan, bazen atseginez ihaurri. Pareko neskak eta laurok haien puska sendituak ginen.

²⁸. Korritu.

Ez zen azken aldia izanen.

Ez.

Ez, ezen handik egun gutirat...

— III —

Albait arinen abiatu ginen, zirt edo zart, erauntsiak²⁹ atzemanen bagintuen.

—Hauxe gogoa!

—Eginen?

—Bikinia soineratu eta bertan gituk han.

—Ontsa.


Bertan ziren hemen eta hirurok bertan³⁰ ginen han.

Euria zekarren zinez. Zerua edder zen: hodeiak gainean genituen. Ordua arte gisa horretako mement txiki³¹ ukana nintzen biziki; hortakotz, orduko hura erogarri zitzaidan, izan ere. Ezen gogozko bi neskarekin bainindoan urtegiari buruz han euritan blai pikarraitu eta bainatzerat. Zinez kilikagarri! Lotsa ginen urtegirat aitzin hasi eta urtegirat

29. Ekaitz.

30. Laster, sarri, gerenhala.

31. Txiki: guti.



orduko bara. Alta, hasi ez eta gu kontent. Trenpu ezinago on, pausua zale, harat han gu aldapari goiti, zerua ilun, mundua beheiti.

–Nolatan, ba, orai harat buruz izigarriko erauntsia dakar eta? –
autoraino titi–agerika, zakua bizkarrean, joanen zen ezagun batek galde-
gina.

–Pitokeria, xarmanteko pitokeria. Badakin uda zeinen maite dudan,
zeinen burutsu senditzen naizen...

–... eta zeinen ero ere bai, horren kontent ibiltzen baihaiz, pitza-
tu³² hori.

–Halaxe dun, maitea.

–Bada, segi, segi ezazue eta ontsa busti.

–Milesker anitz.

–Deustaz.

Zelako ezagunak bertze uda batean kondatu zidan udan exhibizio-
nista ibiltzen zela, morroien aitzinean, eta tartean neskaren bat ere baze-
bilen hainbat hobe. Eguargitan egitekotz, mendian, errekan, piszinen
ondoan eta abarretan, gauez egitekotz jende parrasta bat ibiltzen den
lekuetan, hala nola, hiribarneko parkeetan, ostatuetan, karriketan eta
abarretan eta beti ere bertze hiri edo herrialde batzuetan autoa hartuta.

32. Ero, zoro

Horrek guziak xarmatu ninduen. “Hi ere bahaiteke exhibizionista txotxo polita.” “Edo biok batean; hainbat gauza asma zezakenagu.”

“Baiki, bina tamalez bihar banoak.” “Baia?” “Bai, bakantzatan eta lanean hasten banaiz, gelditu eginen nuk...” “Domaia.” “Bai.” Lagun zitekeen.

Urtegirat arribatu ginen. Ane eta Ibabe oraino ez ziren pikarra³³, baina hobekien paratuak, erran nahi baita, zango pikarra, zangogorri, zangoen gaineen.

Zorionez eguzkistatua nintzen eguzki zipitzik izaitekoz hodeiez haraindi zelarik ere. Lorietan nintzen! Ezin gehiago satifos!

Han berean ginen, han berean oro pikarra busti nahi; zipatu behar ginen, errotik blaitu. Horixe genuen nahi! Irrikan baikinen.

–Badakika? –Anek haurra iduri.

–Zer.

Maite ninduela erran zidan, elkarri beha maite nindutela eta ontsalaz aski maiteko nindutela ere bai. Ez nintzen ametsetarik ari. Gaitz erdi! Oro egia zen: maitetxo nituen bi neska xarmantekin nintzen, urtegian, euritan eta hirurok biluz golli-golli. Zer haboro urus³⁴ sendi-

33. oinutsik, orpogorri, ortozik, antxume.

34. Urus: iros, uros, zoriontsu/malerus, malurus.



tzeko? Izanez ere, menstua bezala nintzen, pito edo tutulu, edo ñuku, pettux, sopikon eta kaskamelontzio³⁵, baiki, honen bainintzen urus. Gisa batez, nerabe sendi nintzen, Angostoko³⁶ gogo-jardunaldiean edo Lapuebla de Labarkako³⁷ ikastaldian ari izan nintzen nerabe hau bezalaxe. Kiskun-kaskun baizik ez dut izkiriatur zein mintzatuz agertzen ahal... Urus... Urus ninduten, eta horretan kito. Bertze orduz, abantzu aldikal kexu, samur, enuxu, muturbeltz bizi nintzen; aitzitik, neskok ezaguturik eta haien maitatzez, bertzelako naiz. Zeinen naizen lotua neskei! Nesken maitatzeari! Battoren baino habororen! Nolaz naizen aldatua. Geroago eta jendekoiago, bidaide, gogaide, partaide eta bazkide, etxaide, ohaide. Bakardadea hala goxo, goxo baita hala bakardadea. Kolpez hil behar izan banintz, futitu nintzatekeen, ez nukeen “Hauxe izan dea bizitzea? Bada, hauxe kaka!” edo gisako pentsatu, ori, izanez ere, honen goxoki nintzen.

Hainbertzenarekin³⁸, euria hasi eta handik llabur zipaturik ginen zinez ari baitzuen, egundo halakorik!, zinez, sekula bezain gostuan. Urak, udabetea bezain bero izanagatik, freskatu gintuen, larrua hain bero genuen.


Horrat hor gu pozarren jauzi eta salto, irri eta oihu. Fuera arropa, fuera bikinia –nik barneko arroparik ez– eta harat han hirurok uretarat

35. Iraintzeko edo laidotzeko baliagarri direnak.

36. Arabako sartaldeko komentua.

37. Arabako Errioxako herria, Biasteritik oso gertu.

38. Tupustean, dzanpez, derrepentean.





buruz bertan pulunpatuak zipatuak segitzeko asmotan. Neskak lasterka, zale eta lerdan, pizkor.

Aro gogorki hitsa, euri eta lurrin. Ez baikenuen bertzerik behar!

-Ura epel dea?

-Bai, epel-epel duk.

-Nahi duanean.

Pulunp eginik, alegeraki ibili ginen igeri, hegian beti ere zer gerta ere urtegia aski perilos baita. Lehorrean nehortxo ez, nehortxo ez baitzen baratu. Zeini burura halakorik? Ezeini ez. Zeini burura euria hasi behar eta urtegiat buruz abiatzea? Guhauri!

Euri-lainoa nabarmena zen, freskagarri, ura bera baino are freskagarriago. Euria ezinbertzez egin behar zuen egun anitzez ekiak ongi dzdinkatua baitzuen. Lehorreratuak, goxo ginen, uros nintzen. Egin, egin zezala, segi zezala erruz, gogotik, goian-behean, zarra-zarra! "Alimalekoa!" Ordua arteko aroa arras ona, alafede, eta, baitezpada, erautsia noizbait ekarri behar, eta bazekarren, ekarri ere. "Bota! Bota egundokoa, to! Zipa gaitzak nahikara nahikara hartzen ari baihaugu guk! Blai! Oro blai! ez ater!"

Belarretan etzan ginen; etzan ziren eta ni haien gainean. Metan ginen, lohitu. "Egon ala jardun?" Garbi zegoen: jardun behar, eta banindoa, joan. Amoroskeria eskaini nien. Elkarrenganako xera likitsa gure barneaz jabetu zen, ezari-ezarian, taigabe jabetu ere.

Denbora aitzinerat joan eta egin ahala ari zuen, ezti eta fresko.
Gure poza! Loria!

Biluz golli-golli nintzen llaguntsa maite pikarraituekin hirurok
urtegian blai. Ametsa! Llaguntsekin hala.

Negurat gogotik biltzen naiz; alta, udarat, oi!, udarat gogotikago,
harat, zinez gogotik: arropa guti edo bat ere ez, neskak antxume³⁹ –nes-
kek bai arropa guti, arras guti edo batto ere ez, to! Udan egun dorperik
ez. Ez, ba. Euritsu bai ote? Ongi etorri euria, lur usaia eta freskura.

Ttanttak sendituz askatua ere ari nintzen senditzen. Xoria bezain
alegera, bake eta sosegu zoriontsuaz gainditua nintzen. Tarteka–marteka
lagunei so egiten nien. Izan, ene bihotzeko berezi–berezi dira, iduri zinez
sustagarri, grazia ezin prezatuzko.

So ari nintzaian, ari. Larrujoile jarraiki, amorratuak ditut.
Udaldian batek badaki zenbat aldiz egiten duten gainez. Hamaikatxo
aldiz, ori. Ene gostuko nahiz bertze batzuek gostuko, ahal duten ororen
gostuko, hobeki erran. Gutik egiten die muzin eta zaputz, hain baitira
xalo, sotil, sinple, plazent, erakargarri eta maitagarri. “Ai, enetxook!”

Loa ene hartzerat gogo onez utzi nuen; bere baitan ame-
tsetan segitu. Lur hutsean ginen, baina horrek ez zuen muntarik. Halaxe
nahi baikenuen, halaxe behar baitzuen.

³⁹. Zangoen gainean, urttuxirik, ortozik, oinutsik, hankutsik.



–Gose zaretea? –Ibabe betan belauniko emanik.

–Ez.

–Bo...

–Hi?

–Hurrana. Lekuak hustuko⁴⁰? Airatuko?

–Bai.

–Bai, egungo aski ukan dugu.

–Arren, ox⁴¹.

Ekiak ekiari⁴² aski izanak, tenore zen lekuak hustu genitzan eta hustu egin genituen oskiak soineratuak, arropak aldean, biluz-golli-golli. Autotik hurbil, haiek bikinia jauntzi zuten eta nik prakak.

“Milatan zaituztet erremestiatzen⁴³, neskak! Zernahi zoko–moko utzi nauzue ttuztatzerat. Karrikarat edo so egitetik baratzen ari ez zen pareko neska lagun.” Batzuetan pentsatzen dut lurrerat eror daitezkeela hil gogor eta halako hotzikarak nau inarrosten, hogenak⁴⁴ bereganatzen. Hain ditut maite, halako lotsak⁴⁵ zafratzen nau. Tatxarik gabeak direla

⁴⁰. Joango.

⁴¹. Goazen, ba.

⁴². Eguzki-galdatan.

⁴³. Erremestiatu: eskertu.

⁴⁴. Erru.

⁴⁵. Beldur.

izkiriartzen banu, gezurter eta pilardit⁴⁶ nintzateke. Izanez ere, tatxa anitz baitute: Anek maite du izerdi-zurrustaka delarik uzkiean hatzak ibili eta berauen usaina aditu, eta gustatu ere bai “Zapore gazia die”. Ibabe gustu-gostuan ibiltzen da etxean tsintsak pur-pur-pur⁴⁷ marranta galantak atzemanaz gero.

A, zer oren gozoak haien ondoan pikarrai! Bake oso eta maitasun handia. Estonatzekoa⁴⁸ da funtsean zein zoriontsu naizen, zein trankil dudan bihotza, sabela, hunak, zeinen kikildua dolorea. Haiei esker. Ametsetan sartu behar nintzateke, utzikeria polita litzateke biziki. Ametsetan sartu, kontzientzia guziz galdu eta kito. Haiek dolorerik ez ni ez bainintzatekeen izan edo haiek ez baitziratekeen. Eta hala akabo, fini, sortu izan ez banintz bezalaxe. Biribila litzateke, guziz.

GIBEL-SOLASAK

Banuen fantasia batto: udabihotzean, gogoko bi neska biluzle⁴⁹ ezagutuko nuen, etxerat jinen ziren, pikarraituko⁵⁰ ginen zabaltzan⁵¹,

46. Gezurter, gezurti, mardailer, petart.

47. Mukiak sudurtzulotik zintzilik, haurrak bezala.

48. Harritzekoa, txunditzekoa.

49. Biluzten dena edo duena.

50. Biluzgorritu.

51. Etxeko terraza.



harraskan kokaraziko ninduten eta bertan ureztatuko, halako erauntsia-
gatik autoz urtegitrat buruz abiatuko ginen, euritan blai pikarra eta bai-
natuko, euria oraino eginen zueino belarretan etzanen ginen, gosetuko eta
autorat itzuliko... Nekeza gertatuko zitzaidan, ezinezko, eta ezin sinetsia.

Alta⁵²...

“Oraino eta luzaz irus⁵³ izanen nuk. Hala biz!”

2000ko martxoaren 3a

(1976koa⁵⁴ gogoan)

52. Hala ere.

53. Zoriontsu.

54. 1976ko martxoaren 3an, Gasteizko Zaramaga auzategiko San Frantzisko elizan nahiz ondoko plazan gri-
sek bortz langile hil zuten.

bertso
paperak



GOXOA ETA MINGOTSA



Mende berri bat hasia dugu
da gazia ta gozoa
kontu ugari pasatu dira
ez da batere zozoa
gertakari bat baino gehiago
suerta leike kurioa
gizarteari egin beharko
diogu errepasoa

Bi milagarren urte hauxe da
mobilen inbasioa
teknologian erraztea nahi
da komunikazioa
baina guzti hau bihurtu dela
sekulako bizioa
non mugatzen da (er)realitatea
ta no(i)z hasten fikzioa






Mozanbikera joanez gero
denak daude mela-mela
gure zorion aurreratua
haien tristura ustela
hala ere gu bista itsutuz
gustora gabiz horrela
nahi beste gauza ditugu baina
konturatzen ez garela

Afrikaldetik Txetxeniara
hegaka goaz astiro
hau aipatzeko dudarik gabe
bada nahikoa motibo
heriotzaren arnaseztuaz
soma daitezke bi tiro
elkartasuna eta bakea
ea datozen berriro

Honenbestean egin dugula
gainbegirada bukatu
denbora azkar aurrera doa
ezin daiteke geratu
ta datorrena datorrela be
ezingo dugu ukatu
Rapelek ere ezin dezake
biharkorikan asmatu.





ZER? SUA

Izarapean jira-biraka,
bai aurreraka bai atzeraka,
goza daiteke berdin bakarrik
binaka ta hirunaka.

Plazer betean azter dezagun
gorputz azalaren mapa,
pixkanaka-pixkanaka,
sexu kontua azken finean
jolasa baino ez da ta.

Muxu artean lastan goxoez,
plazerra dugu zirraren babes,
baina sarritan ezbehar latzak
gertatzen dira tamalez.

Gustoko duzun antisorgailu
hori erabili berez,
hauxe ere jolas legez,
arriskueri mugak ezarritz
baina gozamenari ez.

Nahiz eta neurri andana hartu,
nahiz eta beti zuhur jokatu,
bahipekoa presondegitik
dakiguke eskapatu.

Ume bat izan ala ez izan ezin
ezin denez inposatu,
abortua legeztatu,
holan noiz izan eta norekin
bakoitzak dezan hautatu.

Gay ta lesbianen juizio finala,
dira eliza ta kapitala,
gizarte honek baztertzen baitu
berez homosexuala.

Maitasun hauxe esaten dute
anti-naturala dala,
esango nieke hala:
naturaltasun osoz egina
ez da anti-naturala



Sexua inoiz ez dago geldi.
Badaude mila “filme orlegi”,
aldizkariak, telebista ta
hainbat “sasi barnetegi”.
Baina benetan behar denean
ez da nahi beste ageri.
Egiak jarri nau eri:
gure bizitzan gehiegi dago
baina zinez gutxiegi.

“Ni Fulano naiz. Zer moduz, iepa!”
(holan egiten da fitxaketa)
“Orain ohera eraman eta
sartuko diot tronpeta”
Hola arren ez ! Goza itzazu
minagin, musu ta fereka,
gorputzaren berriketa,
sexuarena sarketa baino
askoz gehiago da eta.



Beste ahotik hiru lau trago,
halere nahia dute beherago,
ta tuberiak hustu ondoren
“gaurkoaz jada akabo” (!)
Holako askok sexu munduan
jokatzen dute pikaro,
oker dabilta zeharo,
zeren gakoa gozatzeaz bat
goza araztean dago.

Sexua heldu da edonora,
telebistatik moda arlora,
moda sexua bilakatu da
ta sexua berriz moda.
Naturaltasun osoz jokatu
ta konplexuak kanpora.
Sexu askapena gora!
azken finean, kantik dion lez:
“sexua goatzeko da”



DURANGO
Udala • Ayuntamiento